# GOBERNU JARDUERAREN 2020KO URTARRILEKO MUGARRIAK
# 64 jarduera

| I. Oinarria: Enplegua, Ekonomiaren Suspertzea eta Jasangarritasuna | | | |
|---|---|---|---|
| **ZK.** | **28 jarduera** | **Data** | **Zabalkundea** |
| **1** | Gobernuak Gardena berritu du, herritarrei EAEko administrazio publikoaren informazio guztira irispidea izateko aukera ematen dien gardentasun-ataria. | 2020/01/07 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Xunta de Galicia |
| **2** | Gobernuak Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia onartu du. Euskal enpresentzat ondorio positiboak izango ditu estrategia horrek; izan ere, aurreikuspenen arabera, 10.000 milioi euro fakturatuko dira produktu zirkularretan datozen hamar urteetan. Hiru helburu nagusi ezarri ditu estrategiak: produktibitate materiala % 30 handitzea; material zirkularren erabilera-tasa % 30 handitzea, eta hondakinen sorkuntza-tasa % 30 gutxitzea BPGd-aren unitate bakoitzeko. | 2020/01/07 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Berria<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>Diario Vasco<br>El Mundo P. Vasco<br>La Vanguardia P. Vasco<br>ABC P. Vasco<br>Expansión<br>Europapress P. Vasco<br>Diarionorte<br>Anoticias<br>OKdiario<br>Cadena COPE<br>Retema<br>Alimarket<br>Ecoticias |
| **3** | Euskadi aritu da Estatuko autonomia-erkidegoen ordezkari Enpleguaren, Gizarte Politikaren, Osasunaren eta Kontsumoaren Europar Batasuneko Kontseiluan (EPSCO). | 2020/01/09 | Irekia (eu)<br>Irekia (es) |
| **4** | Estatistikako Institutu Nazionalaren ekoizpen industrialari buruzko inkestako datuen arabera (2019ko azaroko datuak), EAEko industria Estatu osoko industria halako lau hazi da. | 2020/01/11 | INE<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa |
| **5** | BIND 4.0 industria adimenduneko startupen azeleratzaile publiko-pribatuak gorabidean dauden 38 enpresa hautatu ditu 4.0 industriako 53 proiektu garatzeko azelerazio-programaren laugarren edizioan –hasiera data: urtarrilaren 21a–. Horrek esan nahi du, aurreko edizioarekin alderatuta, % 20 handitu dela trakzio-enpresek hautatu eta kontratatu dituzten proiektuen kopurua; hau da, begi-bistakoa da berrikuntzaren aldeko apustua. | 2019/01/13 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>Expansión País Vasco |
| **6** | Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak 3.677 akordio lortu zituen kontsumitzaileen eta enpresa eta establezimendu erreklamatuen artean, 2019an. Kontsumobide bitartekari aritu zen erreklamazio-kasu guztien % 57 egiten du kopuru horrek. | 2020/01/14 | Irekia (eu)<br>Irekia (es) |
| **7** | Lankidetza-protokolo instituzional bat izenpetu da Arabako Foru Aldundiarekin, lurralde historiko horretan enplegu-politikak eta laneratze- eta gizarteratze-politikak abian jartzeko garaian koordinazioa eta osagarritasuna handiagoak izan daitezen eta bikoiztasunik egon ez dadin. | 2020/01/16 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Noticias de Álava<br>El Correo |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **8** | Easo-Amaran egingo den Topoaren geltokiko hondeaketa-lanak amaitu dira. 2019/01/16 | 2020/01/16 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (es)<br>Diario Vasco<br>Noticias de Gipuzkoa<br>Donostitik |
| **9** | Lehendakariak « Salba dezagun industria. Industria-garapenerako gakoak» jardunaldiari amaiera eman dio. UGT-FICAk –UGTren Industria, Eraikuntza eta Nekazaritza Federazioa– antolatu du jardunaldia, non garrantzitsutzat jo baitira EAEko ekosistema ekonomikoarekiko erantzukizuna, elkarrizketa sozialarekiko konpromisoa eta etorkizun-sena. Bereziki nabarmendu da Eusko Legebiltzarrak, alderdi politiko guztien babesarekin, “enpresa-arloko eredu inklusibo eta parte-hartzailea” garatzeko | 2020/01/16 | Irekia (eu)<br>Irekia es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo<br>La Vanguardia P. Vasco<br>Europapress<br>20 Minutos<br>Diario Norte |
| **10** | Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak lankidetza-hitzarmena sinatu dute, Arabako Errioxako eta Araba Erdialdeko lurralde-plan partzialak (LPP) berrikusteko; 600.000 euroko inbertsioa egin behar izan da horretarako, eta kopuru hori erdi bana finantzatu dute. | 2020/01/17 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EHAA<br>BOPV<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>El Correo<br>Noticias de Álava<br>Euroapress<br>Euskadinoticias<br>Norteexpress |
| **11** | Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lanbide batera jardun ondoren, 2,5 milioi eurotik gorako inbertsioa egin da Oarsoaldeko enplegu-programetan. | 2020/01/17 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Diario Vasco 1<br>Diario Vasco 2 |
| **12** | Euskadik bere burua aurkeztu du FITURen (Nazioarteko Turismo Azoka), jasangarritasuna hartuta balio eragiletzat, eta irudi turistiko berritzailea eta berritua aurkeztu du; Euskadiren standak saria jaso du, erakundeen eta autonomia-erkidegoen kategorian onena izateagatik. | 2020/01/20 | Irekia 1 (eu)<br>Irekia 1 (es)<br>Irekia 2 (eu)<br>Irekia 2 (es)<br>Irekia (bideo/vídeo)<br>EITB 1 (eu)<br>EITB 1 (es)<br>EITB 2 (es)<br>EITB (bideo/vídeo)<br>Fitur<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>El Correo 3<br>Diario Vasco 1<br>Diario Vasco 2<br>Deia 1<br>Deia 2<br>Noticias de Álava 1<br>Noticias de Álava 2<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Mundo P. Vasco<br>Expansión P. Vasco<br>Público<br>Europapress<br>Gipuzkoagaur<br>Bizkaiagaur<br>Eldiario.es<br>20 Minutos<br>Agenciadenoticias<br>Theworldnews<br>Cadena SER<br>Radio Nervión |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **13** | Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako ministroak bilera egin dute, oraindik gauzatu gabe dauden EAEko agendako azpiegitura-gaiei beste bultzada bat emateko eta lankidetza berrezartzeko; besteak beste, AHTari buruz aritu dira. Azpiegitura horri dagokionez, zuzkidurarekin eta erabilerarekin zerikusia duten zenbait aurreikuspen garrantzitsuren berri eman du Gobernuak.. | 2020/01/21 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB 1 (eu)<br>EITB 1 (es)<br>EITB 2 (eu)<br>EITB 2 (es)<br>EITB 3 (bideo/vídeo)<br>Deia 1<br>Deia 2<br>Deia 3<br>Noticias de Álava 1<br>Noticias de Álava 2<br>Noticias de Gipuzkoa 1<br>Noticias de Gipuzkoa 2<br>Noticias de Gipuzkoa 3<br>Noticias de Navarra<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>El Correo 3<br>Diario Vasco 1<br>Diario Vasco 2<br>Gara 1<br>Gara 2<br>Berria<br>El Mundo P. Vasco 1<br>El Mundo P. Vasco 2<br>Expansión P. Vasco 1<br>Expansión P. Vasco 2<br>Eldiario.es<br>Donostitik |
| **14** | Ogasun eta Ekonomiako sailburuak defendatu du Estatuaren Aurrekontu Orokorretan zenbait mekanismo jaso behar direla, administrazioek aukera izan dezaten beren superabita inbertsioetara bideratzeko. | 2020/01/22 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Diario Vasco<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>Europapress P. Vasco |
| **15** | CIC Energigune (Energy cooperative research center) energia ikertzeko zentroa Europako hiru ikerketa-zentro nagusien artean dago bere sektorean; Arabako Teknologia Parkean (Miñao) du egoitza. | 2020/01/23 | Gara<br>Energías renovables |
| **16** | Euskadik 600 milioi euro inbertituko ditu haize-parke berriak instalatzeko, Aixeindar sozietatearen bidez, zeina Iberdrolak eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) osatzen baitute.<br><br>. | 2020/01/23 | El Correo<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Mundo P. Vasco<br>Expansión P. Vasco<br>El Economista<br>Cinco días |
| **17** | Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasa % 9,3 da. (EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundeak emandako datua da, biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik aterata –BJA–). | 2020/01/23 | Eustat (eu)<br>Eustat (es)<br>Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Berria<br>Deia 1<br>Deia 2<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>Diario Vasco 1<br>Diario Vasco 2<br>Expansión P. Vasco<br>20 Minutos<br>Diarionorte<br>Norteexpress<br>Radio Nervión<br>Cadena SER<br>Gipuzkoagaur |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **18** | 2019ko laugarren hiruhilekoko kontuen aurrerapenaren arabera (EUSTAT), Euskadiren hazkunde ekonomikoa % 2,2 izan zen 2019an. | 2020/01/24 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Eustat (eu)<br>Eustat (es)<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>Berria<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Mundo P. Vasco<br>Europapress<br>20 Minutos |
| **19** | Adegi-Gipuzkoako Enpresen Elkarteak "La Fabrika de la Nueva Cultura de Empresa" eraikina egingo du Miramongo Enpresa Parkean, eta Lehendakaria lehen harria jartzeko ekitaldian egon da. Eraikin horretan, enpresen kultura-eraldaketarako goi-errendimenduko zentro bat jarriko da. Lehendakariak etorkizuneko ekonomiaren eta enpresaren kultura ulertzeko modu berri bat defendatu du; hain zuzen ere, pertsonak, talde-lana eta parte-hartzea oinarri hartzen dituena | 2020/01/24 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (bideo/vídeo)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa 1<br>Noticias de Gipuzkoa 2<br>El Correo<br>Diario Vasco 1<br>Diario Vasco 2<br>Berria<br>Donostitik<br>Cadena COPE |
| **20** | EKIAN eguzki-parkea inauguratu da Arasur poligono industrialean, eta han izan dira Lehendakaria, bi sustatzaileen ordezkariak (Energiaren Euskal Erakundea eta Krean taldea) eta 26 enpresa inbertitzaileenak (enpresa guztiak EAEkoak dira). Euskadiko eguzki-parke fotovoltaiko handiena da, eta orain arteko potentzia instalatua bikoizten du. 24 milioi euro inbertitu behar izan | 2020/01/27 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Deia 1<br>Deia 2<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>Berria<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>Expansión<br>Gasteizhoy<br>Gasteizberri<br>El Mundo P. Vasco<br>CapitaMadrid<br>Renevablesnow<br>Radio Nervión |
| **21** | 2019. urtearen amaierari dagozkion istripu-tasaren eta gaixotasun profesionalen datuak aurkeztu dira. | 2020/01/27 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>DiarioNorte<br>Cadena SER |
| **22** | EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundearen datuak argitaraturik, 2019. urteko turismoari buruzko balantzea aurkeztu da. INEk aterpetxe eta kanpinei buruz eman behar dituen abenduko datuak zenbatu gabe, 3,8 milioi bisitari izan genituen Euskadin 2019an. Beraz, 2018. urtearekin alderatuta, % 3,2ko hazkuntza egon da (120.000 turista inguru); ostatu-gauen kopuruaren hazkuntza, berriz, hori baino apur bat handiagoa izango da: % 3,8. | 2020/01/27 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>EITB (bideo/vídeo)<br>Eustat (eu)<br>Eustat (es)<br>Berria<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>Diario Norte |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **23** | Estatistikako Institutu Nazionalaren biztanleria aktiboaren inkestako datuen arabera (BAI), Euskadin langabezia-tasa % 9,09 da. | 2020/01/28 | INE 1<br>INE 2<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo<br>Expansión P. Vasco<br>Gara<br>Berria<br>La Vanguardia P. Vasco<br>Europapress<br>Gipuzkoagaur<br>20 Minutos<br>Gentedigital |
| **24** | Gobernuak "Euskal Autonomia Erkidegoko langileen kontziliazio-baimenak parekatzeari buruzko Dekretuaren" lehen zirriborroa bidali du Eusko Legebiltzarrera. Testu horretan, zera proposatzen da: guraso bakarreko familien kasuan, egungo 18 asteko guraso-baimena (% 100 ordaindua) luzatu eta 24 astekoa izatea. Baimen hori beste bi astez luzatuko da, haur bakoitzeko, jaiotako, adoptatutako edo harrerako haurrak bi edo gehiago badira. Era berean, adingabeak desgaitasunen bat badu, beste bi astez luzatuko da baimena. | 2020/01/28 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>El Correo<br>Donostitik<br>Bebés y más |
| **25** | Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) datuen arabera, Euskadiko txikizkako merkataritzaren sektoreko salmentak % 1,5 handitu ziren, batez beste, 2019an. | 2020/01/29 | INE<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa |
| **26** | Arabako Mugikortasun Agintaritzak (AMA), zeina Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak osatua baitago, BAT NFC gailu mugikorretarako app berri bat aurkeztu du, aukera emango duena BAT txartela kargatzeko eta hari buruzko kontsultak egiteko. | 2020/01/29 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB 1(eu)<br>EITB 1 (es)<br>EITB 2 (es)<br>Noticias de Álava<br>El Correo<br>Gasteizhoy<br>Gasteizberri<br>Euskadi Noticias |
| **27** | Energiaren Euskal Erakundeak 2020. urteko laguntza-programa hauen deialdia egin du –guztira, 20,6 milioi euro egiten dute–: hirugarren sektorean energia-eraginkortasunaren eta eguzki-energia termikoaren aldeko inbertsioak sustatzeko laguntzen programa (1,65 milioi euro); garraio eta mugikortasun efizientearen aldeko inbertsioak sustatzeko laguntzen programa (2 milioi euro); ibilgailu efizienteen eta alternatiboen aldeko inbertsioak sustatzeko laguntzen programa (5 milioi euro); biomasa energetikoki ustiatzeko instalazioetan inbertsioak sustatzeko laguntzen programa (1 milioi euro); geotermia ustiatzeko instalazioetan inbertsioak sustatzeko laguntzen programa (1 milioi euro); autokontsumo elektrikorako energia berriztagarrien instalazioetan inbertsioak sustatzeko laguntzen programa (6 milioi euro); garapen bidean dauden itsasoko energia-teknologia berriztagarriak erakusteko eta balioztatzeko inbertsioen aldeko laguntzen programa (2,5 milioi euro), eta tokiko administrazio publikoaren sektorean energia-eraginkortasunaren eta eguzki-energia termikoaren aldeko inbertsioak sustatzeko laguntzen programa (1,5 milioi euro). | 2020/01/29<br>2020/01/30 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Irekia 2 (eu)<br>Irekia 2 (es)<br>EHAA 1<br>BOPV 1<br>EHAA 2<br>BOPV 2<br>EHAA 3<br>BOPV 3<br>EHAA 4<br>BOPV 4<br>EHAA 5<br>BOPV 5<br>EHAA 6<br>BOPV 6<br>EHAA 7<br>BOPV 7<br>EHAA 8<br>BOPV 8<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>El Correo 3<br>Diario Vasco 1<br>Diario Vasco 2<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>Expansión P. Vasco<br>Energías Renovables |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **28** | Lanbidek proiektu bat aurkeztu du, lurralde bakoitzeko langabezia-tasa handiena duten udalerrietan enplegu berdea bultzatzeko; hau da, Oionen (Araba); Sestaon (Bizkaia), eta Urretxun (Gipuzkoa). | 2020/01/31 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Irekia (youtube)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>Europapress<br>Radio Popular |
| **II. Oinarria: Giza garapena, Gizarteratzea, Berdintasuna eta Kalitatezko Zerbitzu Publikoak** | | | |
| **ZK.** | **33 jarduera** | **Data** | **Zabalkundea** |
| **1** | Euskadin abian jarri den umetoki-lepoko minbizia goiz detektatzeko programa berriari esker, urte eta erdian bikoiztu egingo da baheketa-proba egingo duten emakumeen kopurua. | 2020/01/02 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>La Vanguardia P. Vasco<br>Europapress<br>20 Minutos<br>Norte express<br>Acta sanitaria<br>Siete días médicos<br>Con salud |
| **2** | Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak erosi dizkio SAREB sozietateari; lehenengo autonomia-erkidegoa izan da hori egiten. Bederatzi pisu erosi ditu erosketa-programa baten barruan; horiek horrela, 506 etxebizitza sartuko dira Alokabiden (Jaurlaritzaren alokairu sozialeko agentzia). | 2020/01/03 | El País P. Vasco<br>Pisos.com |
| **3** | Euskal Autonomia Erkidegoan erizainek giza erabilerako sendagaiak eta produktu sanitarioak indikatzeko, erabiltzeko eta ematea baimentzeko baldintzak betetzen dituztela akreditatzera bideratutako prozedura ezartzen duen Agindua onartu da. | 2020/01/08 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EHAA<br>BOPV<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa 1<br>Noticias de Gipuzkoa 2<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>Bizkaiagaur<br>Redacción Médica<br>Acta Sanitaria<br>Diariofarma<br>Gaceta Médica |
| **4** | Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako Oinarrizko Eskalako agente-kategorian txanda irekiaren bidez sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egin da: 700 lanpostu Ertzaintzarako, eta 111 lanpostu Udaltzaingorako. | 2020/01/08 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EHAA<br>BOPV<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>El Correo 3<br>El Correo 4<br>Diario Vasco 1<br>Diario Vasco 2<br>El Mundo P. Vasco<br>Donostitik |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **5** | Gasteizko Salburua auzoan ikastetxe berria ireki da: Errekabarri. | 2020/01/08 | Noticias de Álava<br>El Correo |
| **6** | Euskadi organo-emateen postu gorenetan dago; 2019. urtean, 65 emaile egon ziren milioi bana biztanleko. | 2020/01/10 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Deia 1<br>Deia 2<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>Bizkaiagaur<br>Gipuzkoagaur<br>Actasanitaria |
| **7** | Barrualde-Galdakaoko ESIaren Psikiatria Zerbitzuak eta Tolosaldeko ESIak Avedis Donabedian XXXI. edizioko sariak jaso dituzte; lehenengoak Osasun Mentalaren eta Adikzioen kategorian, eta bigarrenak, berriz, Lehen Mailako Arretaren kategorian. | 2020/01/11 | El Correo<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>Acta Sanitaria<br>Redacción Médica |
| **8** | Ikerbasque-Zientziarako Euskal Fundazioak 2020. urtean ikertzaile gazteak –ahal dela, emakumeak– kontratatzeko deialdia onartu du, Euskadiko goi-mailako zientzia-zentroetan eta unibertsitateetan lan egin dezaten. | 2020/01/13 | Ikerbasque (eu)<br>Ikerbasque (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>Gara<br>Diario Norte<br>20 Minutos |
| **9** | Oñatiko Udalak eta Ertzaintzako eta Osakidetzako zerbitzuek protokolo bat sinatu dute, indarkeria matxistari erantzun integrala emateko. | 2020/01/14 | Diario Vasco 1<br>Diario Vasco 2<br>Noticias de Gipuzkoa |
| **10** | Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez, hasiera eman zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoaren Erregelamendu Orokorrean jasota dagoen jokoaren plangintza berrikusteko prozedurari eta erregelamenduan eguneratu edo aldatu beharreko alderdiak aldatzeko prozedurari. Horrez gainera, etenda geratzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan joko-lokalak jartzeko eta funtzionatzeko baimen-eskaeren izapidetzeak eta onartzeak eta baimen-aldaketak, salbu eta obra-baimenak badira eta ez badute berekin ekartzen lokalaren azalera handitzea; orobat, erregelamenduaren aldaketa onartu arte, etenda geratzen da joko-makinak ustiatzeko baimen berriak ematea. | 2020/01/14 | Irekia 1 (eu)<br>Irekia 1 (es)<br>Irekia 2 (eu)<br>Irekia 2 (es)<br>EHAA<br>BOPV<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>Diario Vasco 1<br>Diario Vasco 2<br>Deia 1<br>Deia 2<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa 1<br>Noticias de Gipuzkoa 2<br>Berria<br>Gara<br>Expansión P. Vasco<br>La Vanguardia P. Vasco<br>Diario Norte<br>Gasteizhoy<br>Euskadinoticias<br>Cadena SER<br>Cadena COPE |
| **11** | ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboak web-orri bat jarri du martxan (Arantzazu musikan), non Arantzazu Santutegiko antzinako musika-artxiboaren katalogoa kontsultatu baitaiteke, amaitu da-eta RISM (Répertoire International des Sources Musicales) nazioarteko araudiaren araberako birkatalogatze-prozesua. | 2020/01/15 | Diario Vasco<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>Gara<br>Berria<br>Naiz<br>KMK (youtube) |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **12** | Kirol-instalazioak erabiltzeko txartel bakarra (Mugiment kirol-txartela) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak zuzentzen duen proiektua da, eta aldundien eta ekimenarekin bat egiten ari diren udalerrien lankidetza du –dagoeneko 16 udalerri atxiki dira–. 2019an, udalerriarteko erabilerak 17.000 baino gehiago izan ziren Ezkerraldean eta Meatzealdean. | 2020/01/15 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>El Correo 3<br>Diario Vasco<br>Gara<br>Naiz<br>Noticiaspress<br>EnBaracaldo<br>NorteExpress<br>Bizkaie.biz<br>Cadena COPE |
| **13** | Crohn-en Gaixotasunaren eta Kolitis Ultzeradunaren Espainiako Lantaldeak (GETECCU) bikaintasun-ziurtagiria eman die heste-gaixotasun inflamatorioa duten pazienteen arreta osorako Gurutzetako Ospitalearen unitateetako arduradunei (pediatriakoak eta helduen unitatekoak). Gurutzeta da, hain zuzen, aintzatespen bikoitz hori lortu duen Estatuko lehen ospitalea, eta horrek argi uzten du zer-nolako bikaintasunez artatzen dituzten osasun-zentro horretan heste-gaixotasun inflamatorioa duten adin guztietako pazienteak. | 2020/01/15 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>El Correo<br>Europapress<br>Medicina21<br>Acta Sanitaria<br>Consalud |
| **14** | Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak 2019ko lan-eskaintza publikoa onartu du, estatutupeko langile finkoentzat. | 2020/01/20 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>Deia<br>Gipuzkoagaur<br>Redacción Médica<br>Con salud<br>Portalparados |
| **15** | Euskadi da zahartzaro aktiboaren aldeko ADLIFE proiektu europarraren buru; proiektuan, Europako bederatzi herrialdek parte hartzen dute. Euskal osasun-sistemak, Kronikgune–Osasun Zerbitzuen Ikerketa Institutuaren bidez, Europako bederatzi herrialdetako (Erresuma Batua, Polonia, Alemania, Danimarka, Suedia, Israel, Turkia eta Belgika) 11 entitatek osatzen duten partzuergoa koordinatuko du, ADLIFE proiektua garatzeko ("Integrated personalized care for patients with advanced chronic diseases to improve health and quality of life"). | 2020/01/21 | Irekia 1 (eu)<br>Irekia 1 (es)<br>Irekia 2 (eu)<br>Irekia 2 (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>Noticiaspress<br>El Global<br>Consalud |
| **16** | Euskadi Orkestra Sinfonikoak (EOS) Parisen eta Istanbulen aurkeztu du bere burua, nazioartean garatzen ari den proiekzio-prozesuaren barruan. | 2020/01/22 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (es)<br>Gara<br>Deia 1<br>Deia 2<br>Noticias de Álava 1<br>Noticias de Álava 2<br>Noticias de Gipuzkoa 1<br>Noticias de Gipuzkoa 2<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>Diario Vasco 1<br>Diario Vasco 2<br>La Vanguardia<br>Scherzo<br>Eldiario.es<br>Radio Nervión |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **17** | Osasun Sailak jakinarazi du C hepatitisaren baheketa-programa urtearen lehenengo hiruhilekoan hasiko dela Euskadin; arrisku-populazioen baheketez gain, baheketa oportunistak ere egingo dira. | 2020/01/22 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>ABC<br>Gara<br>Diario Vasco<br>Deia<br>Noticias de Gipuzkoa<br>Europapress<br>Europapress (vídeo)<br>Burgosconecta<br>Hoy<br>Gaceta Médica<br>Consalud<br>Correo farmacéutico<br>Infosalus<br>Diario Médico<br>Isanidad |
| **18** | Osasun Sailak eta Osakidetzak "plater osasungarria" izeneko informazio-kanpaina abiarazi dute, gehiegizko pisuari eta obesitateari aurrea hartzeko. | 2020/01/23 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Berria<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>Diario Vasco<br>La Vanguardia P. Vasco<br>Europapress<br>Actasanitaria<br>Consalud<br>Cadena COPE<br>Cadena SER |
| **19** | Gorabidean dauden Gaixotasun Infekziosoen Euskadiko Aholku Batzordeak bilera egin du koronabirus berriak eragindako egoera epidemiologikoa aztertzeko, eta lasai egoteko mezua zabaldu du; izan ere, esan du, esku hartzea beharrezkoa balitz, EAEk badituela mekanismo aproposak eta nahikoak egoerari aurre egiteko. | 2020/01/24 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Diario Vasco 1<br>Diario Vasco 2<br>El Correo<br>Berria<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>La Vanguardia P. Vasco<br>Europapress<br>Eldiario.es 1<br>Eldiario.es 2<br>20 Minutos<br>Norteexpress<br>El Correo |
| **20** | Lanbide Heziketari buruzko datu garrantzitsuak aurkeztu dira: LH Dualeko ikasleen eta enpresen kopurua handitu egin da, aurtengo ikasturtean 2.639 ikasle eta 1.435 enpresa izan baitira; LH guztiko matrikulazioa % 1,85 igo da, lan-egoera hobetu den arren, eta ziklo industrialetan neska gehiago daude, hain zuzen ere, iazko ikasturtean baino % 12,3 gehiago. | 2020/01/24 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (es)<br>Berria<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Mundo P. Vasco<br>La Vanguardia P. Vasco<br>Europapress<br>El Diario.es |
| **21** | "2019ko barometroa. Euskadiko hirugarren sektore sozialeko antolakundeen datu nagusiak" lana aurkeztu da, eta Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia abian jarriko dela iragarri, zeina Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia eraldatzearen ondorioz sortu baita. | 2020/01/24 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>Diario Vasco<br>Europapress |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **22** | Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bigarrenez aldatzeko Legearen proiektua onartu du Gobernuak. | 2020/01/28 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Deia 1<br>Deia 2<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo<br>Diario Vasco 1<br>Diario Vasco 2<br>Gara<br>Berria<br>20 Minutos<br>Diarionorte<br>Bizkaiagaur<br>Cadena SER |
| **23** | Eusko Jaurlaritzak Nazio Batuetako muturreko pobreziaren eta giza eskubideen errelatore bereziari harrera egin dio. | 2020/01/29 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Diario Vasco<br>Deia<br>Europapress<br>Diario Norte<br>20 Minutos |
| **24** | "Infartu Kodea" abian jarri zenetik, heriotza-tasa % 10,4tik % 6,8ra jaitsi da Euskadin. | 2020/01/29 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>Redacción Médica<br>Donostitik<br>Agenciadenoticias<br>20 Minutos<br>Fotos.Europapress |
| **25** | Lan eta Justizia Sailak taxututako Emakumearen Aurkako Indarkeriaren 2019-2021ko Jarduera Plana onartu da. | 2020/01/29 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Irekia (youtube)<br>Justizia.eus (eu)<br>Justizia.eus (es)<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>El Correo 3<br>Diario Vasco |
| **26** | EAEko Lanbide Heziketaren alderdi nagusien berri eman zaio Europako Lehendakaritza berriari, eta Lanbide Heziketako V. Euskal Plana aurkeztu zaie diplomazialariei, Madrilen. | 2020/01/29<br>2020/01/30 | Irekia 1 (eu)<br>Irekia 1 (es)<br>Irekia 2 (eu)<br>Irekia 2 (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>Diario Vasco<br>La Vanguardia P. Vasco<br>Europapress<br>Diario Norte |
| **27** | Donostialdea ESIak 3 teslako potentzia duen erresonantzia magnetikoko ekipo berria martxan jarri du. OSATEKek instalatu du, eta Lehendakaria hura ikustera joan da, Osasuneko sailburuarekin eta Osakidetzako zuzendari nagusiarekin. | 2020/01/30 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Diario Vasco<br>Noticias de Gipuzkoa |
| **28** | Euskadiko Filmategiak inoiz baino ikusle gehiago izan ditu 2019an. Donostiako eta Bilboko zinema-zikloek 12.200 ikusle baino gehiago bildu dituzte; hots, 2018ko ikusle kopurua halako bi. | 2020/01/30 | El Correo<br>Diario Vasco<br>Noticias de Gipuzkoa<br>La Vanguardia P. Vasco |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **29** | Alokabidek eta Visesak Euskadiko etxebizitza-parke publikoa sortzeko eta finkatzeko egin duten ekarpena azpimarratu da, haien sorkuntzaren XX. eta XXX. urteurrena ospatzeko ekitaldian.. | 2020/01/30 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>Diario Vasco<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>La Vanguardia P. Vasco<br>Europapress |
| **30** | Osakidetzaren 2019ko balantzea aurkeztu da. | 2020/01/31 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Irekia (youtube)<br>Osakidetza (eu)<br>Osakidetza (es)<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Deia<br>Noticias de Gipuzkoa<br>Gara<br>Naiz<br>Berria<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>Diario Vasco<br>20 Minutos<br>Redacción Médica<br>Acta Sanitaria<br>Gaceta Médica<br>Donostitik |
| **31** | Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiaren Gasteizko instalazio berriak inauguratu dira. | 2020/01/31 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Gara<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>Noticias de Álava 1<br>Noticias de Álava 2<br>Gasteizhoy |
| **32** | Trafikoa zaintzeko eta kontrolatzeko 49 kanpaina jarriko dira abian 2020an, arreta jarrita, batez ere, abiaduran, arreta-galtzeetan eta alkoholaren eta drogen kontsumoan. | 31/01/2020 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>La Vanguardia P. Vasco<br>Europapress<br>Bilbao24horas<br>Columnacero |
| **33** | Kulturaren Euskal Behatokiaren “Arte eta Industria Kultural eta Sortzaileen Estatistikak” aurkeztu dira. Horko datuen arabera, kulturari eta sorkuntzari lotutako industriek 6.800 pertsona baino gehiagori ematen diete lana Euskadin, eta 762 milioi euroko sarrera-bolumena sortzen dute. | 2020/01/31 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Diario Vasco<br>El Correo<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Berria<br>Europapress |

| III. Oinarria: Bizikidetza eta Giza Eskubideak | | | |
|---|---|---|---|
| **ZK.** | **2 jarduera** | **Data** | **Zabalkundea** |
| **1** | Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren idazkari nagusiak jakinarazi duenez, Eusko Jaurlaritzak plan bat proposatuko dio Espainiako Gobernuari, Estatuko espetxeetan dauden 210 euskal presoak Euskal Herriko espetxeetara edo EAEtik eta Nafarroatik gertu daudenetara hurbiltzeko; asmoa da, hori egin eta gero, gizarteratze-prozesuari ekitea. | 2020/01/15 | EITB 1 (eu)<br>EITB 1 (es)<br>EITB 2 (eu)<br>EITB 2 (es)<br>EITB 3 (video)<br>ABC<br>El País<br>La Vanguardia 1<br>La Vanguardia 2<br>La Razón 1<br>La Razón 2<br>El Mundo<br>Expansión<br>Huffingtonpost<br>El Correo 1<br>El Correo 2<br>El Correo 3<br>El Correo 4<br>Diario Vasco 1<br>Diario Vasco 2<br>Diario Vasco 3<br>Diario Vasco 4<br>Diario Vasco 5<br>Berria 1<br>Berria 2<br>Berria 3<br>Berria 4<br>Gara 1<br>Gara 2<br>Gara 3<br>Deia 1<br>Deia 2<br>Deia 3<br>Noticias de Álava 1<br>Noticias de Álava 2<br>Noticias de Álava 3<br>Noticias de Gipuzkoa 1<br>Noticias de Gipuzkoa 2<br>Noticias de Gipuzkoa 3<br>Diario de Noticias 1<br>Diario de Noticias 2<br>Diario de Noticias 3<br>Diario de Noticias 4<br>Diario de Navarra<br>El Mundo P. Vasco 1<br>El Mundo P. Vasco 2<br>El Mundo P. Vasco 3<br>La Rioja<br>Heraldo de Aragón 1<br>Heraldo de Aragón 2<br>DiariodeBurgos<br>Diario SUR<br>Vozpopuli<br>Europapress 1<br>Europapress 2<br>Europapress 3<br>El Diario. es<br>Siglo XXI<br>Gipuzkoagaur<br>Bizkaiagaur<br>Agenciadenoticias<br>Elconfidencialdigital<br>El Confidencia<br>El Independiente<br>El Pueblo Digital<br>Bolsamania<br>Cadena SER |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **2** | ADOS batzordeak eta EAEko meskitetako imamek egin duten lehenengo bileran egon da Lehendakaria, eta Bizikidetzaren aldeko Manifestua aurkeztu du, zeinaren bultzatzailea Euskadiko komunitate islamikoekin elkarlanean aritzeko aholku-batzorde hori baita. | 2020/01/17 | Irekia (eu)<br>Irekia (es)<br>Manifiesto<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>Naiz<br>El País P. Vasco<br>Europapress<br>20 Minutos<br>Laicismo.org |
| **IV Oinarria: Autogobernu gehiago eta hobea** | | | |
| **ZK.** | **1 jarduera** | **Data** | **Zabalkundea** |
| **1** | Eusko Jaurlaritzak erabaki du Konstituzio Auzitegian errekurtsoa jartzea urriaren 31ko 14/2019 Errege Lege Dekretuaren aurka, “Dekretu Digitala” izenez ezaguna berau –errege-lege dekretu horren bidez, presako neurriak hartzen dira segurtasun publikoko arrazoiengatik administrazio digitalaren, sektore publikoko kontratazioaren eta telekomunikazioen arloan–. Horrek ez du ezertan eragozten EAEko eta Espainiako gobernuek sei hilabeteko negoziazio-epea izatea, aldebiko lankidetza-batzordearen eremuan, arau horren aurreikuspenei buruz dituzten desadostasunak ebazte aldera. | 2020/01/21 | Irekia 1 (eu)<br>Irekia 1 (es)<br>Irekia 2 (eu)<br>Irekia 2 (es)<br>EITB (eu)<br>EITB (es)<br>Deia<br>Noticias de Álava<br>Noticias de Gipuzkoa<br>El Correo<br>Diario Vasco<br>Gara<br>El Mundo P. Vasco<br>La Vanguardia<br>El Independiente<br>Europapress<br>20 Minutos<br>Pressdigital<br>Eldiario.es |